

Etorri eta trukea egin!

Azken 4 urteotan egin izan den bezala, aurten ere, Liburuaren Eguna dela eta Denon Eskolako Liburtxo Batzordeak hurrengo maiatzaren 9rako liburuen trukea sustatu eta horretarako espazio bat eskaintzeko ekintza antolatu du.

Liburuak utzi eta berrerabiltzeko sistema hau abiatzeko zera izango da egun horretan:

- Adin guztietako irakurketa liburuak, euskarazkoak zein erdarazkoak, trukatzeko stand bat.
- Antton Irusta, ipuin kontalari ospetsua, ipuina seme-alaba eta gurasoen arteko komunikazio bide legez aldarrikatzen duena. 4 saio burutuko ditu, elebidunak eta guztiz parte-hartzaileak.

Ekintza hau esan bezala hurrengo maiatzaren 9an ospatuko da goizeko 11etatik arratsaldeko 20etara Vitoria-Gasteizko Posta Plazan. Informazio guztia bidali da jadanik ikastetxeetara ahalik eta parte hartzerik zabalena eman dadin.



Giza Baloreak: proiektu berria

Arabako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, lantzen al da giza baloreen heziketa? nola? Nahikoa al da?...

Galdera hauek Denon Eskolako giza Baloreen inguruko Lan Taldearen abiapuntua izan dira Arabako Euskal Eskola Publikoan bigarren hezkuntzako ikasleek jasotzen duten giza baloreen gaineko heziketaren inguruko hausnarketa bideratzeko.

Eskola Elkarte osoaren inplikazioak duen garrantzirik abiatuta hainbat tailer burutzea planteatu da. Horietako lehena joan den apirilaren 7an burutu zen IGE-etako gurasoekin. Apirila eta maiatzean zehar beste 4 tailer gehiago burutuko dira guraso eta zuzendaritza talde eta irakasleekin.

Zaintza zerbitzua, goiztiar txikiak, esnagailu zerbitzua,...

Denon Eskolan hainbat kontsulta jaso dugu ikastetxea goizeko eskola orduak baino lehen zabaltzearen inguruan. Zuzendaritza Batzordean gaia landu genuen eta hainbat hausnarketa egin genuen. Eta gainera kafe tertulia bat ere antolatu genuen interesaturik zeuden Guraso Elkarteekin. Bilera oso positibo eta aberasgarria izan zen, dauden esperientzien berri eman baitzen eta hainbat zalantza atera eta argitu zirelako. Hona hemen gaiaren inguruan ateratako ondorioak:

- Aitortu behar dugu hainbat familiatan zerbitzuaren beharra dagoela eta lana eta familia uztartzen laguntzen duela, baina berriz ere eskola elkartearen esku uzten da gizarte mailako arazo baten konponketa, enpresen erantzun bat ere izan beharko lukeena hain zuzen ere (ordutegi malgutasuna, asistentziatzko bestelako zerbitzuak...)
- Umeak eskolan ematen duen ordu kopuruaren inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa iruditzen zaigu, eta horrekin batera "ez araututako" denbora eta familiarekin emandako denboraren garrantziaren inguruan ere.
- Berriz eskola publikoa desabantailarekin, badirudielako sare pribatuak haren "pakete"-an zerbitzu hau ere eskaintzen duela. Beste autonomia erkidego batzuetan zerbitzu hau Administrazioak antolatzen du.
- Zerbitzuaren alde praktikoari erreparatu, gure ustez, antolatzea planteatzen denean, ikastetxe publikoetako Guraso Elkarteek interesa daukaten familiek kudeatu ahal izatea eta ikastetxearen zuzendaritzarekin kontaktua izatea erraztu beharko lukete.
- Edozein modutan, hura martxan jartzeko erabakia OOG-ari dagokio, ikastetxearen urteko proiektuan agertu behar baita.
- "Denon Eskola"-k ez du parte hartuko begiraleen kontratazioan. Halere interesa daukaten IGE eta familiei haien ikastetxeetan zerbitzua abiatzeko informazioa eskainiko du.

agenda

Maiatzak 5

Giza Baloreen inguruko Lan Taldea
Tailerra zuzendaritza talde eta irakasleekin
10:00etatik 12:00etara S. de Beauvoir Elk. Etxean

Maiatzak 7

EUSKARA Batzordea
18:30etan Denon Eskolan

Maiatzak 9

Liburuaren trukeerako jardunaldia
Liburtxo-ren stand bat
11:00etatik 20:00etara, Posta Plazan

Maiatzak 14

Kafe Tertulia: Diru-laguntzak eta Eskolaz Kanpokoak
18:30etan Denon Eskolan

Maiatzak 20

Giza Baloreen inguruko Lan Taldea
Tailer bateratua guraso, zuzendaritza talde eta irakasleekin
18:30etatik 20:30etara

IGE-entzako Aseguruak

Duela gutxi arte IGE-ak bezalako erakundeei formalki eskatzen zitzaizen aseguru bakarra Erantzukizun Zibilekoa zen, halere aspaldi honetan erakunde ofizialetatik Boluntarioen ekainaren 25eko 17/1998 Legea guztiz betetzea eskatzen ari da, zeinean zera adierazten den: *"boluntarioak dituzten erakundeek, edozein izaera juridiko izanik, aseguru poliza kontratatu beharko dute boluntarioei osasun laguntza, jardura boluntarioan izandako istripuek eragindako heriotza edo baliaezintasun iraunkorra zein jardueraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak bermatzu".*

Lehen aipatutako Legeak eskatzen dituen estaldurak eskaintzeko asmoz, gure aseguru artekariaren bidez lehenagoko estaldurarekin alderatuz Erantzukizun Zibileko poliza hobeagoa eta Istripuetarako beste bat negoziatu ditugu. Informazio gehiago nahi izanez gero Denon Eskolaren webgunean aurkituko duzu.

